

**Galdakaoko  
Emakumeen eta  
Gizonen  
Berdintasunerako  
II. Plana**

2014 - 2017

# Aurkibidea

<b>1</b>	Planaren ikuspegia	<b>3</b>
<b>2</b>	Eremu teorikoa eta eremu legala	<b>5</b>
<b>3</b>	Planaren ezaugarriak eta helburuak	<b>12</b>
<b>4</b>	Berdintasun-diagnostikoan jasotako hobekuntza-arloak	<b>13</b>
<b>5</b>	Ekintza-plana	<b>17</b>
<b>5.1</b>	Berdintasunaren aldeko gobernantza hobetzeko neurriak	<b>18</b>
<b>5.2</b>	Emakumeen ahalduntzerako neurriak	<b>26</b>
<b>5.3</b>	Gizarte-antolakuntza erantzukiderako neurriak	<b>35</b>
<b>5.4</b>	Indarkeria matxistaren aurkako neurriak	<b>36</b>
<b>5.5</b>	Ekintza-planaren laburpen-taula eta kronograma	<b>40</b>
<b>6</b>	Planaren kudeaketa	<b>49</b>
<b>6.1</b>	Koordinazioa eta antolaketa	<b>49</b>
<b>6.2</b>	Planaren ebaluazioa	<b>52</b>
<b>6.3</b>	Baliabideak	<b>52</b>
<b>6.4</b>	Ebaluaziorako tresnak	<b>53</b>
<b>7</b>	Koordinazioaren organigrama	<b>56</b>

# 1. Planaren ikuspegia

Galdakaoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Planak EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planaren lan-printzipio eta- estrategiak ditu abiapuntu.

## Emakumeen eta gizonen berdintasunerako gobernantza

Kontzeptu horren barruan, genero-zeharkakotasuna gauzatzera bideratutako oinarrizko alderdiak bilduko dira, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea betetzeari eta garatzeari dagokionez.

Bere printzipio orokorren artean, Lege honek genero-ikuspegia herri-aginteei aurrera eramaten dituzten politika eta ekintza guztietan txertatzeko aldarrikapena egiten du, desberdintasunak ezabatzeko eta gizon-emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko (3. artikulua).

Lege horren ondorioetarako, zera esan nahi du: *"emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, xede eta behar desberdinak modu sistematikoan kontuan hartzea eta, horretarako, politika eta jardura guztietan, arlo eta horien plangintza guztietan eta gauzatze- eta ebaluazio-fase guztietan, berdintasuna babestea eta desberdintasunak desagerraraztea xede duten helburu eta ekintza zehatzak txertatzea"*.

## Emakumeak ahalduntzea eta balioak aldatzea

Esku hartzeko ildo honek hau hartzen du barne: emakumeek beren bizitzari eragiten dieten baliabide eta erabakiei buruzko autoritatea eta boterea areagotzea.

Emakumeak, banaka eta talde gisa, euren egoeraren jabe egitearekin dago lotuta, horrela areagotu egingo dutelako erabakiak hartzeko prozesuetan duten parte-hartzea, bai eta boterea erabiltzeko eta eragina izateko ahalmena ere.

## **Gizarte-antolakuntza erantzukidea**

Gizarte-antolakuntza erantzukideari jarraiki, bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzea erraztuko da, honako hauen bitartez: gizonek etxeko lanetan erantzukide izatea bultzatzea, enpleguaren egiturak bizitza pertsonalaren beharretara egokitzea, eta zerbitzu soziosanitarioak egokitzea.

## **Emakumeen aurkako indarkeria**

Ildo estrategiko honek epe laburrean esku hartu nahi du, biktimak babesteko eta haiei arreta eskaintzeko neurriak eta baliabideak sortuz. Gainera, emakumeen aurkako indarkeria gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunaren ondorio dela erakusten duten sentsibilizazio- eta prebentzio-ekintzek lehentasuna dute hura erabat desagerrarazteko bidean.

## 2. Eremu teorikoa eta eremu legala

Azken urteetan, lege eta arau juridiko ugari onartu dira Nazioartean, Europan, Estatuan nahiz bertan, emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunerako eskubidea esplizituki aintzatesteko. Horiek, bada, erakunde- eta legegintza-aterki zabala eman diote Berdintasun Plani honi.

Hona hemen genero-politiken egitura teoriko-legalaren mugarrietako batzuk:

- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena (2013ko abenduaren 21ean eguneratu zen).
- Otsailaren 18ko 4/2005 Legea, EAEko emakumeen eta gizonen berdintasuneko.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana.
- Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, emakume eta gizonen berdintasun eraginkorrekoa.
- Emakumeen eta gizonen toki-bizitzako berdintasunerako Europako Gutuna.

**Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena (2013ko abenduaren 21ean eguneratu zen).**

Legearen 28. artikulua arabera, berez beste herri-administrazio batzuei badagozkie ere, udalerriek haien jarduera gehigarri batzuk egin ditzakete, bereziki hezkuntzari, kulturari, emakumeen sustapenari, etxebizitzari, osasunari eta ingurumena babesteari buruzkoak. Ildo horretatik, toki-administrazioaren protagonismoa argia da. Esku hartzeko arau-esparru bat dago udalerriek jarduerak sustatu ahal izan ditzaten, bai eta genero-arloan herritarren beharrak eta helburuak betetzen laguntzen duten zerbitzu publikoak eskaini ere, beste herri-administrazio batzuek eskumenak galdu gabe edo horiei oztopatu gabe.

## **Otsailaren 18ko 4/2005 Legea, EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunekoa.**

Aipatu Legearen esparruan, administrazioari emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko zer funtzio dagozkion definitzen da, Autonomia Estatutuko 10.39 artikulutik eta Lurralde Historikoen Legearen 6) eta 7 c) 2 artikuluetatik eratorritako eskumenak abiapuntu hartuta, bai eta estatutu-arauak (9.2 artikulua) eta arau komunitarioak (Europar Batasunaren Itunaren 3.02 artikulua) ere. Horiek hauetara behartzen dituzte herri-aginte guztiak: batetik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eraginkorra izateko baldintzak sustatzera eta oztopoak ezabatuz, eta, bestetik, berdintasun hori beren politika eta ekintza guztietan sustatzera.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak honako funtzio hauek eman dizkie toki-administrazioei:

- Genero-ikuspegia txertatzeko egiturak, programak eta prozedurak egokitzea eta sortzea.
- Ekintza positiboko neurriak gauzatzea.
- Gobernuaren plangintza orokorraren esparruan programatzea eta foru-aldundien programazioa.
- Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren egoera eta berdintasuna sustatzeko beharrezko neurriak ezagutzeko aukera ematen duten estatistika eguneratuak egokitzea eta mantentzea.
- Emakumeen eta gizonen toki-arloko egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea.
- Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren egoerari eta berdintasuna sustatzeko beharrezko neurriei buruz sensibilizatzeko jarduerak egitea.
- Toki-araudiaren jarraipena egitea eta hori emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren arabera aplikatzen den kontrolatzea.
- Herritarrei, eta bereziki emakumeei, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko baliabide eta programei buruzko informazioa eta orientazioa ematea, bai eta askotariko bereizkeria jasaten duten emakumeek oinarrizko gizarte-eskubideak eskuratzea bermatzeko programa eta zerbitzuei buruzkoa ere.
- Askotariko bereizkeria jasaten duten emakumeek oinarrizko gizarte-eskubideak eskuratzea bermatzeko programak edo zerbitzuak –beren izaeragatik udalek eman behar dituztenak– ematea.
- Bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzeko baliabideak eta zerbitzuak –beren izaeragatik udalek eman behar dituztenak– ezartzea.

- Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta parte-hartzea eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek toki-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.
- Toki-eremuan gertatzen diren sexu-bereizkeriako egoerak antzematea eta horiek errotik kentzeko neurriak hartzea.
- Beren eskumenen arloan agindu dakiekeen beste edozer funtzio.

### **EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana.**

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planak frogatzen du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea funtsezko aurrerapena dela berdintasun-politiketarako; izan ere, berdintasun-printzipioa –printzipio juridiko unibertsala– araudi bidez garatzen du, dela tratu-berdintasuna, dela aukera-berdintasuna, bai Euskal Herri Administrazioan, bai erakunde pribatuetan.

Legeak EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planaren diseinu eta egiturari buruzko oinarrizko lau funtzio ezartzen ditu:

- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan herri-aginteen jarduna zuzendu behar duten printzipio orokorrak ezartzeko funtzioa (Legearen atariko titulua).
- Euskadiko herri-aginte eta -administrazioen ekintzetan genero-ikuspegia txertatzeko neurriak arautzea (I. eta II. tituluak).
- Esku-hartzeko arloetan berdintasuna sustatzeko neurriak egituratzeko funtzioa (III. titulua).
- Oinarrizko edukiak definitzeko funtzioa.

### **Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrekoa.**

Legeak (2007ko martxoaren 23ko BOEn argitaratu zen) abiapuntu duen premisaren arabera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna "printzipio juridiko unibertsal bat da, eta giza eskubideei buruzko nazioarteko hainbat testutan errekonozituta dago". Horren arabera, gainera, Legearen aurrean berdintasun formala errekonozitzea oinarrizko alderdi bat da, arau-ekintza baten bidez hobetu behar dena. Arau-ekintza horrek "sexuagatiko bereizkeria zuzen edo

zeharkako adierazpen guztiei aurre egin behar die eta emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna sustatu, bai eta berdintasuna lortzea galarazten duten oztopoak eta gizarte-estereotipoak ezabatu ere".

Hainbat funtsezko printzipiotan oinarritzen da, besteak beste hauetan: "Ekintza Positiboa", "Ordezkaritza orekatua" eta "Zeharkakotasuna".

21.1 artikulua araber, "toki-erakundeek beren zereginetan txertatuko dute berdintasun-eskubidea, eta, horretarako, gainerako herri-administrazioekin batera lan egingo dute". Hala, 3/2007 Legeak toki-erakundeen berezko eskumenei egiten die erreferentzia. Horiek Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak oro har emandakoak dira eta, euskal udalerrien kasuan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean zehaztutakoak.

#### **Emakumeen eta gizonen toki-bizitzako berdintasunerako Europako Gutuna.**

Emakumeen eta gizonen toki-bizitzako berdintasunerako Europako Gutuna Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseiluak bultzatu du, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Ekintza Komunitarioko V. Programaren barruan, eta "Europako tokiko eta eskualdeko gobernuei zuzentzen zaie, eta animatzen ditu sinatzera eta emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioari buruzko jarrera publikoa hartzera, bai eta beren lurraldeetan Gutunean definitutako konpromisoak aplikatzera ere".

EUDEL (Euskal Udalerrien Elkartea) proiektuaren kideetako bat da, eta gero eta udal gehiagok sinatu dute Gutuna. Gutunari atxikitako udalek berdintasunerako ekintza-plan bat egin eta ezarri behar dute bi urteko epean. Plana modu parte-hartzaileak diseinatu behar dute, eta ebaluatu egingo da. Udalek, gainera, plana ezartzeko adina baliabide izan behar dute. Plana abiarazteko adina baliabide izan behar dute, halaber.

Europako Gutunaren arabera, tokiko eta eskualdeko agintaritzak "esku hartzeko mailarik egokienak dira, hain zuzen ere, desberdintasunak ezabatzeko eta benetan berdintasunezkoa den gizarte bat sustatzeko".

Arauok berdintasunerako printzipioak dituzte oinarri; hauek, zehazki:



*(Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 euskal Legea).*

## 1. – TRATU BERDINTASUNA.

Debeku da pertsonen sexuan oinarritzen den bereizkeria oro, zuzeneko zein zeharkakoa, edozein delarik ere hartarako erabilitako era.

Lege honen ondoreetarako:

- a) Zuzeneko bereizkeria dago pertsona bat sexuaren zioz edo sexuarekin zuzenean loturik dauden inguruabarrak direla-eta –haurdun egonda edo ama izanda, esaterako– beste pertsona bat baino modu txarragoan tratatzen denean. Delitu gisa izan dezakeen tipifikazioa ahaztu gabe, laneko sexu-jazarpena sexuaren ziozko zuzeneko bereizkeriatzat jotzen da.
- b) Zeharkako bereizkeria dago egintza juridiko, irizpide edo eginera batek, itxuraz neutroa izanda ere, sexu bereko multzo aski handiago bati kalteak eragiten dizkionean, salbu eta egintza juridiko, irizpide edo eginera hori egokia eta beharrezkoa denean, eta sexuarekin loturik ez dauden irizpide objektiboak erabilia justifikatzeko modukoa denean.

Euskal aginte publikoek ezin izango dute inolako diru-laguntza edo laguntzarik eman sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duen edonolako jardueratarako. Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta administrazio-zehapena edo zigor penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak ere egoera berean geratuko dira, dena delako zehapen edo zigorrak dirauen denboran.

Euskal herri-aginteek bermatu behar dute ezen bereizkeria-egoerak eragin ditzaketen beste inguruabar batzuk ere tartean direla-eta bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek nahiz emakume-taldeek benetan baliatzen dituztela beren oinarritzko eskubideak. Inguruabarrok honako hauek izan daitezke: arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritziak, gutxiengo nazional baten kide izatea, ondarea, jaioterria, ezintasuna, adina, sexu-joera, edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozial.

## 2. – AUKERA BERDINTASUNA.

Euskal herri-aginteek neurri egokiak hartu behar dituzte emakumeek eta gizonen eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, eta arauetan aitortu lekizkiekeen

gainerako oinarrizko eskubideak, aukera berdinekin baliatzen dituztela bermatzeko, boterea eta baliabide eta etekin ekonomikoak eta sozialak eskuratu eta kontrolatzea barne. Lege honen ondoreetarako, aukera-berdintasunaz ari garela, zera esan nahi da: agintea eta baliabide eta onura sozial eta ekonomikoak eskuratzeko abiagune edo hasierako baldintzak ez ezik, horiek guztiak gauzatzeko eta behar den moduan kontrolatzeko baldintzez ere ari garela.

Era berean, euskal herri-agintek bermatu egin beharko dute ez dela oztoporik egongo lege honetan aipatzen diren eskubideak gauzatzeko eta arautzen diren baliabideak eskuratzeko; izan ere, abenduaren 4ko 20/1997 Legean oztopo horiek bertan behera uztea zehazten baita (Irigarritasuna Sustatzen du lege horrek).

### 3. – ANIZTASUNA ETA EZBERDINTASUNA ERRESPETATZEA.

Herri-agintek beharrezko diren neurri guztiak abiarazi behar dituzte sexuen berdintasunerako prozesuan errespetatu daitezzen bai gizonen eta emakumeen artean biologiari, bizi-baldintzei, jomugei eta beharrezko dagozkienez dauden ezberdintasunak eta aniztasuna, bai emakumeen eta gizonen kolektiboen euren barruan dauden ezberdintasunak eta aniztasuna ere.

### 4. – GENERO IKUSPEGIAREN INTEGRAZIOA.

Euskal herri-agintek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten.

Lege honen ondoreetarako, honakoa da "genero-ikuspegiaren integrazioa": emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrezko ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egitaritza eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketara zehatzak txertatzea.

### 5. – EKINTZA POSITIBOA.

Emakumeen eta gizonen benetako berdintasun eraginkorra lortzea sustatze aldera, herri-agintek denboran ondo mugatutako berariazko neurri zehatzak abiarazi behar dituzte, bizitzaren eremu guztietan sexuaren zioz gertatzen diren egitatezko ezberdintasunak ezabatzeko edo murrizteko.

6. – SEXUAREN ARABERAKO ROLAK ETA ESTEREOTIPOAK DESAGERRARAZTEA.

Euskal aginte publikoek, inola ere, sexuaren araberako rol sozial eta estereotipo batzuk desagerraraztea sustatu behar dute, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren oinarri baitira eta horien arabera emakumeei etxeko eremuaren ardura eta gizonei eremu publikoaren ardura izendatzen baitzaizkie, eta hori, gainera, balorazio eta aitortpen ekonomiko eta sozial oso ezberdina eginez.

7. – ORDEZKARITZA OREKATUA.

Euskal aginte publikoek neurri egokiak hartu behar dituzte emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lor dadin erabakiak hartzeko eremu guztietan. Lege honen ondoretarako, pertsona anitzeko administrazio-organoetan ordezkariak orekatutzat, hain zuzen, sexu biek % 40ko ordezkariak, gutxienez, dutenean joko da.

### 3. Planaren ezaugarriak eta helburuak

Plan honen helburu orokorra genero-ikuspegia udal-kudeaketan sartzea da, eta, horretarako, berdintasuneko tokiko politikak abian jartzea. Politika horiek araudi-berdintasunetik harago joan behar dute, eta aukera eta emaitzen benetako berdintasun eraginkorra bermatzeko erronka izan behar dute.

Honako hauek dira Galdakaoko Udaleko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Planaren ezaugarriak:

- 4 urteko iraunaldia du: 2014-2017 aldirako eginda dago.
- Aurreko diagnostikoa, datuen eguneraketa eta aurreko planaren ebaluazioa modu parte-hartzailean egin da. Udaleko langileek eta gizarte-eragileek parte-hartze aktiboa izan dute.
- Berdintasun Arloa arduratuko da Plana koordinatzeaz eta bultzatzeaz.
- Plan irekia eta malgua da, eta urteko plan operatiboak definitzeke daude.
- Plan ebaluagarria da, eta lortutako helburuak etengabe ebaluatzeko adierazleak ditu.
- Udaleko arloek eta erakunde arduradunek, aurreikusitako denboran eta eskura dauden baliabideekin, garatzeko helburu eta ekintza bideragarriak ditu.
- Tresna honek udalerrinari eragiten dio, eta konpromiso politiko eta tekniko da, bai eta herritarrena ere.

## 4. Berdintasun-diagnostikoan jasotako hobekuntza-arloak

Hona hemen antzemandako hobekuntza-ildo nagusienak. Horiek, bada, bat datoz EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planak aurkezten dituen esku hartzeko ildoekin.

Esku hartzeko ildo bakoitza zatitu egin da, gauzatu beharreko ekintzaren izaera aintzat hartuta, administrazioak eskura dituen esku hartzeko tresnen arabera. Honako hauek dira:

- Koordinazioa
- Ezagutza
- Sentsibilizazioa
- Prestakuntza
- Tresnak
- Baliabideak

### Emakumeen eta gizonen berdintasunerako gobernantza

#### EZAGUTZA:

- Berdintasunaren aldeko konpromiso politikoari eustea.
- Udalaren webguneak eskaintzen dituen parte hartzeko ekintzei eustea.
- Galdakaoko Udalaren Berdintasunerako II. Plana sistematizatzea.
- Gizarte-klausulak sartzea Udalak egiten dituen zerbitzu- eta programa-kontratazioetan.

#### SENTSIBILIZAZIOA:

- Udalak datuak sexuaren arabera bereizten jarraitzea, eta beste erakunde batzuk hala egitera animatzea.

#### PRESTAKUNTZA:

- Berdintasun-arloko prestakuntza ematea udal-langileei eta udal-zerbitzuetan lan egiten duten langile guztiei.

#### TRESNAK:

- Genero-ikuspegia udal-arloetan zer-nola txertatzeari buruzko ezagutza hobetzea.
- Genero-ikuspegia sartzeko tresnak, gidak eta materialak egitea.
- Udal-dokumentuetan berdintasuneko hizkeraren erabilera hobetzea.

#### KOORDINAZIOA:

- Udal-arloen arteko koordinazioa eta komunikazioa hobetzea.
- Barne-koordinaziorako espazioak izatea (arlo artekoak).
- Berdintasunarekin lotutako sareetan parte hartzen jarraitzea; esaterako Berdinsarean.
- Programak eta zerbitzuak kontratatzerakoan, berdintasunaren aldeko urratsak ematen ari diren enpresak baloratzea.

### **Ahalduntzea eta balioak aldatzea**

#### SENTSIBILIZAZIOA/PRESTAKUNTZA:

- Galdakaoko emakumeen ahalduntzea sustatzeko berariazko espazioekin jarraitzea.
- Berdintasuna sustatzeko haurrei zuzendutako jarduerak antolatzen jarraitzea.
- Genero-berdintasuna eta indarkeria matxistaren prebentzioa sustatzen jarraitzea, kultura-programazioaren bitartez.
- Emakumeek kirolean duten parte-hartzea hobetzeko jarduerak bultzatzen jarraitzea.
- Gurasoei neskatoek eta neska gazteek kirolen bat egitearen garrantziaz sensibiltzatzea.
- Emakumeen eta neska gazteen ahalduntzea hobetzeko jarduerak antolatzea.
- Jostailu ez-sexisten kanpainak egitea.

- Elkarte mailan, emakumeak kulturari ahalduz bultzatzea.

#### KOORDINAZIOA:

- Enplegu Eskualde Planaren hobekuntza-ildo berri izatea.

#### **Gizarte-antolakuntza erantzukidea**

#### KOORDINAZIOA:

- Herritarrak eta gizarte-eragileak kontziliazioari eta erantzukidetasunari buruz sentsibilizatzea.
- Zainketen eta kontziliazioaren aldeko tokiko itun bat sustatzea (gaintitu beharreko alderdiak: soldata-ezberdintasunak bertako emakumeen eta emakume migratuen artean, zainketa emakumeen erantzukizun gisa, gizonen erantzukidetasun falta, eta abar).

#### SENTSIBILIZAZIOA:

- Gizon, emakume, mutiko, neskatu eta gazte erantzukideen ereduak ezagutaraztea.
- Gizonak zainketetan eta etxeko lanetan inplikatzeko.
- Emakumeen ugaltze-lana baloratzea.

#### TRESNAK:

- Inguruko enpresek eskura dituzten kontziliazio-neurrien (ordutegi-malgutasuna, espazio-malgutasuna, baimenak, lizentziak, eta abar) berri izatea.

#### BALIABIDEAK:

- Hiri Udalekuen Programa bultzatzen jarraitzea.

#### **Emakumeen aurkako indarkeria**

#### KOORDINAZIOA:

- Emakumeen aurkako indarkeriaren protokoloa jakinaraztea maila teknikoan eta politikoan.

#### SENTSIBILIZAZIOA:

- Segurtasun, irisgarritasun eta Galdakaoko emakumeen segurtasun-sentsazioarekin lotutako hirigintza-alderdiak hobetzeko emakumeen proposamenak jasotzea.
- Herritarrak emakumeen aurkako indarkeria errotik ezabatzeko borrokan inplikatzeta.
- Elkarre-mugimendua genero-indarkeriaren aurkako borrokan inplikatzeta.
- Gizonak indarkeria errotik ezabatzeko borrokan inplikatzeta.
- Gizarte-eragileak (esaterako, hezkuntza-zentroak, osasun-zentroak eta ospitalea) genero-indarkeriaren kontrako borrokan inplikatzeta.
- Sentsibilizazio-ekintzak egitea indarkeriaren prebentzio eta antzematean.

#### BALIABIDEAK:

- Gizarte-zerbitzuak arreta-ordu normalizatuz kanpo indartzea bideragarria den aztertzea (larrialdien zerbitzua).
- Babes Ofizialeko Etxebizitzak Sustatzeko Oinarrietan, erreserba bat egitea tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzako.
- Indarkeriaren biktimak diren emakumeei ekonomikoki laguntzen jarraitzea.
- Genero-indarkeriaren biktimak artatzeko uneko zerbitzuak eskaintzen jarraitzea: harrera-pisuak, lege-aholkularitzako zerbitzua, arreta psikologikoko zerbitzua, eta abar.



## 5. Ekintza-plana

Atal honetan, 2014-2017 aldian egin beharreko helburuak eta ekintzak garatuko dira, Plan honetako arloekin bat.

Helburuek aldatu nahi den gizarte-errealitatea definitzen dute, eta egin behar dena lehenesteko funtzioa dute. Gainera, lortutako emaitzen irismena zehazten dute, proposatutako adierazleen eta ondorengo ebaluazioen bitartez. II. Plan honetan, arlo bakoitzean ezarriko dira helburuak, eta horietako bakoitzean, EAeko Berdintasunerako V. Planean jasotako ekintza-taldeetan sartzen diren ekintzak barne hartuko dira.

JARDUERA EREMUAK	HELBURUAK	EKINTZAK
EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZA	7	27
EMAKUMEAK AHALDUNTZEA ETA BALIOAK ALDATZEA	7	31
GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERANTZUKIDEA	2	5
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA	3	9
<b>GUZTIRA</b>	<b>19</b>	<b>72</b>

## 5.1 Emakumeen eta gizonen berdintasunerako gobernantza

**G.1 helburua:** Berdintasun politikak koordinatzeko tresnak sortzea bultzatzea.

**1. jarduera: Alkatetzaren eta Berdintasun Arloaren arteko jarraipen-mekanismoak ezartzea.**

Noiz: Berdintasun Planaren indarraldian.

Nork: Alkatetzak eta Kultura, Gazteria, Berdintasun Politika eta Kirol Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Ba ote dagoen Alkatetzaren eta Kultura, Gazteria, Berdintasun Politika eta Kirol Arloaren arteko koordinazio- eta jarraipen-mekanismorik (bai/ez).

**2. jarduera: Udaleko arloen arteko sektorekako lan-mahaiak ezartzea, ekintza-plan zehatzetarako.**

Noiz: Planaren indarraldian.

Nork: Alkatetzak eta arlo guztiek.

Betetze mailaren adierazlea: Ba ote dagoen udaleko arloen arteko sektorekako lan-mahairik, ekintza-plan zehatzetarako, eta jarri ote den martxan (bai/ez).

**3. jarduera: Herritarrek parte hartzeko egitura bat sortzea (Berdintasun Mahaia).**

Noiz: 2015ean.

Nork: Kultura, Gazteria, Berdintasun Politika eta Kirol Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Sortu ote duen Kultura, Gazteria, Berdintasun Politika eta Kirol Arloak herritarrek parte hartzeko egiturarik (bai/ez).

**4. jarduera: Erakunde-koordinazioko egituretan parte hartzen jarraitzea; esaterako, Berdinsarean.**

Noiz: Berdintasun Planaren indarraldian.

Nork: Kultura, Gazteria, Berdintasun Politika eta Kirol Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Erakunde-koordinazioko zenbat egituratan parte hartzen duen Galdakaoko Udalak.

#### **5. jarduera: Berdintasun Planaren Urteko Programa Operatiboak egitea.**

Noiz: urte bakoitzeko azken hiruhilekoan, Planaren indarraldian.

Nork: Kultura, Gazteria, Berdintasun Politika eta Kirol Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Egiten ote duen Arloak urteko plan operatiborik (bai/ez).

## **G.2 helburua:** Berdintasun-politiken etengabeko ebaluazioa sustatzea:

### **1. jarduera: Berdintasun Planaren etengabeko ebaluazioa egitea.**

Noiz: urte bakoitzeko azken hiruhilekoan, Planaren indarraldian.

Nork: Kultura, Gazteria, Berdintasun Politika eta Kirol Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Egin ote den urteko plan operatiboaren urteko ebaluaziorik (bai/ez).

### **2. jarduera: Emakundek, Emakumearen Euskal Erakundeak, tokiko mailan berdintasun-politikak ebaluatzeko egiten duen inkesta elektronikoa betetzea.**

Noiz: urte bakoitzeko azken hiruhilekoan, Planaren indarraldian.

Nork: Kultura, Gazteria, Berdintasun Politika eta Kirol Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Bete ote den Emakunderen inkesta (bai/ez).

## **G.3 helburua:** Berdintasunerako berriazko aurrekontuak egotea sustatzea.

### **1. jarduera: Berdintasun Arloari berorrek hasitako ekintzak egiteko berriazko aurrekontu bat esleitzen jarraitzea.**

Noiz: urtero.

Nork: Udalbatzak eta Zerbitzu Ekonomikoen Arloak (Kontu-hartzailletza).

Betetze mailaren adierazlea: Ba ote dagoen Kultura, Gazteria, berdintasun Politika eta Kirol Arloak berdintasun-esparruan hasitako ekintzak egiteko berariazko aurrekonturik (bai/ez).

## **G.4 helburua:** Berdintasun eta aniztasunerako komunikazioa sustatzea.

### **1. jarduera: Berdintasun Arlorako Komunikazio Plan bat egitea, bere jarduera ezagutarazteko.**

Noiz: 2014an eta hurrengoetan.

Nork: Kultura, Gazteria, Berdintasun Politika eta Kirol Arloak eta Alkatetzak (Komunikazioa).

Betetze mailaren adierazlea: Ba ote dagoen komunikazio-planik (bai/ez).

### **2. jarduera: Udalaren Estilo Eskuliburuan, Udaleko langile guztiek, barrukoek (politikariak, teknikariak, administrazioko langileak, eta abar) nahiz kanpokoek (udal-zerbitzuak, azpikontratutako enpresak, eta abar), hizkera eta irudi ez-sexistak erabiltzeko jarraibideak sartzea.**

Noiz: 2014

Nork: Kultura, Gazteria, Berdintasun Politika eta Kirol Arloak eta Alkatetzak (Komunikazioa).

Betetze mailaren adierazlea: Ba ote dagoen Udaleko langile guztiek, barrukoek (politikariak, teknikariak, administrazioko langileak, eta abar) nahiz kanpokoek (udal-zerbitzuak, azpikontratutako enpresak, eta abar), hizkera eta irudi ez-sexistak erabiltzeko jarraibiderik, Udalaren Estilo Eskuliburuan. (bai/ez)

### **3. jarduera: Berdintasun Plana barruan nahiz kanpoan hedatzea.**

Noiz: Planaren indarraldian.

Nork: Kultura, Gazteria, Berdintasun Politika eta Kirol Arloak eta Alkatetzak (Komunikazioa).

Betetze mailaren adierazlea: Hedatu ote den barruan Berdintasun Plana (bai/ez). Hedatu ote den kanpoan Berdintasun Plana (bai/ez).

**4. jarduera: Udaleko langileei Berdintasun Planaren aurrerapenei buruzko informazioa helaraztea aldizka.**

Noiz: Planaren indarraldian.

Nork: Berdintasuneko teknikariak.

Betetze mailaren adierazlea: Bidali ote zaien sei hilez behin udaleko langileei Berdintasun Planaren aurrerapenei buruzko informaziorik (bai/ez).

**5. jarduera: Hedabideei Berdintasun Planaren aurrerapenei buruzko informazioa helaraztea aldizka.**

Noiz: sei hilez behin, Planaren indarraldian.

Nork: Kultura, Gazteria, Berdintasun Politika eta Kirol Arloak eta Alkatetzak (Komunikazioa).

Betetze mailaren adierazlea: Bidali ote zaien sei hilez behin hedabideei Berdintasun Planaren aurrerapenei buruzko informaziorik (bai/ez).

## **G.5 helburua:** Genero-ikuspegia udal-arloen eguneroko lanean sartzea sustatzea.

**1. jarduera: Hainbat udal-arloekin batera genero-ikuspegia lantzeko bilerak antolatzea.**

Noiz: Planaren indarraldian.

Nork: Arlo arteko lan-batzordeak.

Betetze mailaren adierazlea: Egin ote den hainbat udal-arloekin batera genero-ikuspegia lantzeko bilerarik (bai/ez).

**2. jarduera: Genero-ikuspegia udal-kudeaketan sartzeko gida (teoriko/praktiko) moduko tresnak sortzea.**

Noiz: 2014an.

Nork: Kultura, Gazteria, Berdintasun Politika eta Kirol Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Egin ote den genero-ikuspegia udal-kudeaketan sartzeko gidarik (bai/ez).

**3. jarduera: Udalak sortzen duen informazio guztiaren datu-bilketa aldatzea, barruan nahiz kontratu bidez egiten diren ikerketa, inkesta, txosten, estatistika, memoria, azterlan eta abarretan sexuaren arabera banaketa bermatzeko.**

Noiz: Planaren indarraldian.

Nork: Udal-arlo guztiek, Antolamendu, Giza Baliabide eta Informatika Arloarekin eta Kultura, Gazteria, Berdintasun Politika eta Kirol Arloarekin batera.

Betetze mailaren adierazlea: Banatu ote den sexuaren arabera datu, estatistika eta, oro har, informaziorik (bai/ez).

**4. jarduera: Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko prestakuntza-saioak antolatzea udal-langileentzako eta politikarientzako, Udal Prestakuntzako Planaren barruan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 17. artikuluari jarraiki.**

Noiz: urtero.

Nork: Kultura, Gazteria, Berdintasun Politika eta Kirol Arloak eta Antolamendu, Giza Baliabide eta Informatika Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko zenbat prestakuntza-saio eskaini zaizkien udal-langileei eta politikariei.

**5. jarduera: Genero-ikuspegia udal-araudian sartzea, aurretiko eragin-txostena egitearen bidez.**

Noiz: 2015ean eta hurrengoetan.

Nork: Udal-arlo guztiek.

Betetze mailaren adierazlea: Genero-ikuspegia barneratu duten zenbat udal-araudi egin diren. Zenbat aurretiko eragin-txosten egin diren.

**6. jarduera: Genero-ikuspegia barneratu duten gizarte-klausulak sartzea Udalak egiten dituen zerbitzu- eta programa-kontratazioetan.**

Noiz: 2015ean eta hurrengoetan.

Nork: Udal-arlo guztiek.

Betetze mailaren adierazlea: Genero-ikuspegia barneratu duten gizarte-klausulak dituzten zenbat zerbitzu eta programa bultzatu diren.

**7. jarduera: Udalaren aldetik programak eta zerbitzuak kontratatzen dituztenean, berdintasunaren aldeko ekintzak egiten dituzten erakundeak positiboki baloratzea.**

Noiz: Planaren indarraldian.

Nork: Udal-arlo guztiek, Kultura, Gazteria, Berdintasun Politika eta Kirol Arloarekin batera.

Betetze mailaren adierazlea: Udalak kontratatutako erakundeak, berdintasun-ekintzetan balorazio positiboa dutenak.

**8. jarduera: Udal-aurrekontuen genero-eragina aztertzeko tresnak egitea.**

Noiz: 2015ean eta hurrengoetan.

Nork: Udal-arlo guztiek, Kultura, Gazteria, Berdintasun Politika eta Kirol Arloarekin batera.

Betetze mailaren adierazlea: Zenbat tresna egiten diren, zenbait arlo dauden tresnak aplikatzean inplikaturik, zenbat aurrekonturi aplikatu zaizkien tresnak.

**9. jarduera: Genero-eraginaren txosten bat egitea Hiri Antolamenduko Plan Orokorri lotuta.**

Noiz: 2014an eta hurrengoetan.

Nork: Arlo Teknikoak eta Kultura, Gazteria, Berdintasun Politika eta Kirol Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Egin ote den txostenik (bai/ez).

**10. jarduera: Administrazioaren barruko berdintasunezko funtzionamendua ezarriko duen eta, zehazki, udal-egituretan emakumeen eta gizonen arteko oreka bermatuko duen udal-erregelamendu bat garatzea.**

Noiz: 2015ean eta hurrengoetan.

Nork: Arlo Teknikoak eta Kultura, Gazteria, Berdintasun Politika eta Kirol Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Egin eta onartu ote den erregelamendurik (bai/ez).

## **G.6 helburua:** Emakumeek eta gizonen Udalak egiten dituen ekintzetan berdintasunez parte hartzea sustatzea.

**1. jarduera: Emakumeek eta gizonek Udalak sustatzen dituen prozesu parte-hartzaileetan (batzordeak, epaimahaiak, lehiaketak, eta abar) berdintasunez parte hartzen dutela berrikustea eta, hala badagokio, bermatzea.**

Noiz: aldizka.

Nork: Udal-arlo guztiek.

Betetze mailaren adierazlea: Ba ote dagoen emakumeen eta gizonen presentzia orekatua duen prozesu parte-hartzailerik (bai/ez). Batzorde, epaimahai eta abarretan zenbat emakume eta gizon dauden.

## **G.7 helburua: Udal-langileen kudeaketa genero-ikuspegitik sustatzea.**

**1. jarduera: Galdakaoko Udalean jazarpen sexuala eta sexista saihesteko protokolo bat egitea eta onartzea.**

Noiz: 2015ean.

Nork: Kultura, Gazteria, Berdintasun Politika eta Kirol Arloak eta Antolamendu, Giza Baliabide eta Informatika Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Ba ote dagoen Udalean jazarpen sexual eta sexistaren kontrako protokolo hitzarturik; ba ote dagoen Galdakaoko Udalean jazarpen sexual eta sexistaren kontrako protokolo onarturik (bai/ez).

**2. jarduera: Udaleko emakumezko langileek antzemandako beharren eta hobetzeko arloen urteko txostena egitea, eta enpresa-batzordeari entregatzea, hitzarmena negoziatzeko orduan erabiltzeko.**

Noiz: 2016an eta hurrengoetan.

Nork: Kultura, Gazteria, Berdintasun Politika eta Kirol Arloak eta Antolamendu, Giza Baliabide eta Informatika Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Egin ote den antzemandako beharren eta hobetzeko arloen urteko txostenik (bai/ez). Entregatu ote zaion enpresa-batzordeari txostenik (bai/ez).



**3. jarduera: Galdakaoko Udaleko lanpostu bat lortzeko oposaketen gairerrendetan berdintasun-politikei lotutako berariazko atal bat egotea bermatzen jarraitzea.**

Noiz: Udaleko lanposturen bat lortzeko oposaketak dauden bakoitzean, 2015az geroztik.

Nork: Udal-arlo guztiek, Kultura, Gazteria, Berdintasun Politika eta Kirol Arloarekin batera.

Betetze mailaren adierazlea: Ba ote dagoen Udaleko lanposturen bat lortzeko oposaketen gairerrendarik berdintasunari buruzko berariazko galderarik duenik (bai/ez).

## 5.2 Emakumeak ahalduntzea eta balioak aldatzea

*Programa: autonomia pertsonala eta balioak aldatzea*

**Ah.1 helburua:** Autonomia eta generoaren kontzientzia bultzatzea.

**1. jarduera:** Ahalduntzeari lotutako alderdi guztiei heltzea pobrezia ekonomikoko eta bazterkeria-arriskuko egoeran dauden emakumeei zuzendutako laneko prestakuntzako programa guztietan.

Noiz: 2015ean eta hurrengoetan.

Nork: Gizarte Ongizate, Tokiko Garapen eta Enplegu Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Ba ote dagoen emakumeei zuzendutako eta ahalduntzeari lotutako alderdiak jorratzen dituzten laneko prestakuntzako programarik (bai/ez). Zenbat emakumek parte hartzen duten prestakuntza-programetan.

**2. jarduera:** Galdakaoko edozer adineko emakumeei, batik bat gazteei, zuzendutako ahalduntze-tailerrak egitea.

Noiz: 2015ean eta hurrengoetan.

Nork: Kultura, Gazteria, berdintasun Politika eta Kirol Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Egin ote den Galdakaoko emakumeei zuzendutako ahalduntze-tailerrik (bai/ez; emakumeen kopurua, adinaren arabera).

**Ah.2 helburua:** Balioen aldaketa bultzatzea, sexuaren araberako rol sozialak eta estereotipoak deuseztatuta

**1. jarduera: Aisialdia monitorizatzeko tresnak egitea, genero-ikuspegia haurrentzako programetan txertatzeko.**

Noiz: 2015ean eta hurrengoetan.

Nork: Kultura, Gazteria, berdintasun Politika eta Kirol Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Ba ote dagoen aisialdiaren monitoretzak genero-ikuspegia haurrentzako programetan txertatzeko tresnarik (bai/ez).

**2. jarduera: Azterlan kuantitatibo bat egitea hezkuntza-zentroetan, beren egituren (zuzendaritza-taldea, eskola-kontseilua, irakasleak zikloka, eta abar) osaera aztertzeke sexuaren arabera bereizita.**

Noiz: 2015ean.

Nork: Kultura, Gazteria, berdintasun Politika eta Kirol Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: egin ote den azterlanik (bai/ez).

**3. jarduera: Genero-ikuspegia eskolaz kanpoko jardueretan eta ludoteketan sartzeari sustatzea.**

Noiz: 2015ean eta hurrengoetan.

Nork: Kultura, Gazteria, berdintasun Politika eta Kirol Arloak eta Hezkuntza eta Euskara Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: egin ote den azterlanik (bai/ez).

**4. jarduera: Baterako hezkuntzako jarduerak antolatzea Galdakaoko gurasoentzat, bai eta haurrentzat ere.**

Noiz: 2014an eta hurrengoetan.

Nork: Kultura, Gazteria, berdintasun Politika eta Kirol Arloak eta Hezkuntza eta Euskara Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Antolatu ote den baterako hezkuntzako jarduerarik (bai/ez); jardueretan zenbat pertsonen parte hartu duten adinaren eta sexuaren arabera.

**5. jarduera: Berdintasunaren, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzearen eta erantzukidetasunaren arloko sentsibilizazio-jarduerak antolatzea, gizonei zuzenduta.**

Noiz: 2016an.

Nork: Kultura, Gazteria, berdintasun Politika eta Kirol Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Egin ote den berdintasunaren, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzearen eta erantzukidetasunaren arloko sentsibilizazio-jarduerarik gizonei zuzenduta (bai/ez); jardueretan parte hartu duten gizonen kopurua adinaren arabera.

**6. jarduera: Egun berezietan, esaterako, martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, eta emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako beste egun berezi batzuetan, sentsibilizazio- eta aldarrikapen-kanpainak antolatzen jarraitzea.**

Noiz: Berdintasun Planaren indarraldian.

Nork: Kultura, Gazteria, Berdintasun Politika eta Kirol Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Egun berezietan, berdintasunarekin lotutako zenbat sentsibilizazio-kanpaina egin diren; zenbat pertsonak parte hartu duten, sexuaren eta adinaren arabera.

**7. jarduera: Hezkuntzako eragileen artean berdintasuna bultzatzeko tresnak eta baliabideak erratzea; betiere, hezkuntza-zentroetan parte hartzeko metodologiari jarraiki.**

Noiz: 2014an eta hurrengoetan.

Nork: Kultura, Gazteria, Berdintasun Politika eta Kirol Arloak eta Hezkuntza eta Euskara Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Berdintasuna bultzatzeko, zenbat tresna eta baliabide eman zaizkie hezkuntzako eragileei.

**8. jarduera: Emakumeen eta gizonen bizitzako hainbat arlotako berdintasunari buruzko hausnarketa- eta sentsibilizazio-jarduerak egitea.**

Noiz: 2014an eta hurrengoetan.

Nork: Kultura, Gazteria, Berdintasun Politika eta Kirol Arloak eta Hezkuntza eta Euskara Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Emakumeen eta gizonen bizitzako hainbat arlotako berdintasunari buruzko zenbat hausnarketa- eta sentsibilizazio-jarduera egin diren. Jardueretan zenbat pertsonak parte hartu duten, adinaren eta sexuaren arabera.

**9. jarduera: Informazioa genero-ikuspegitik jorrazeko protokolo bat egitea, herritarrei, elkarteei, saltokiei, hedabideei, eta abarrei zuzenduta.**

Noiz: 2014an eta hurrengoetan.

Nork: Kultura, Gazteria, berdintasun Politika eta Kirol Arloak eta Hezkuntza eta Euskara Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Emakumeen eta gizonen bizitzako hainbat arlotako berdintasunari buruzko zenbat hausnarketa- eta sentsibilizazio-jarduera egin diren. Jardueretan zenbat pertsonak parte hartu duten, adinaren eta sexuaren arabera.

*Programa: parte-hartze soziopolitiko eta eragina*

**Ah.3 helburua:** Emakumeen elkarte-mugimendua eta horiek elkarte-egituran parte hartzea sustatzea.

**1. jarduera: Herritarren Galdakaoko elkarte-egiturako parte-hartzeari buruzko azterlan bat egitea, genero-ikuspegitik.**

Noiz: 2016an.

Nork: Kultura, Gazteria, berdintasun Politika eta Kirol Arloak eta Alkatezak (Komunikazioa).

Betetze mailaren adierazlea: Egin ote den herritarren Galdakaoko elkarte-egiturako parte-hartzeari buruzko azterlanik, genero-ikuspegitik.

**2. jarduera: Emakumeek udalerriko elkarte-mugimenduan parte hartzea sustatzeko ekintza-plan bat egitea.**

Noiz: 2016an.

Nork: Kultura, Gazteria, berdintasun Politika eta Kirol Arloak eta Alkatezak (Komunikazioa).

Betetze mailaren adierazlea: Egin ote den emakumeen parte-hartzea sustatzeko ekintza-planik (bai/ez).

**3. jarduera: Galdakaoko emakumeen elkarteentzako prestakuntza-ekintzak antolatzen jarraitzea.**

Noiz: 2015ean eta 2016an.

Nork: Kultura, Gazteria, Berdintasun Politika eta Kirol Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Egin ote den prestakuntza-ekintzarik Galdakaoko emakumeen elkarteentzako (bai/ez). Zenbat emakumek parte hartu duten.

#### **4. jarduera: Emakumeen elkarteei erakundeen barne-kudeaketari buruzko aholkuak ematea.**

Noiz: 2014an eta hurrengoetan.

Nork: Berdintasuneko teknikariak.

Betetze mailaren adierazlea: Zenbat kontsulta egin dituzten emakumeen elkarteek erakundearen barne-kudeaketari buruz.

#### **5. jarduera: Emakumeen arteko topaketak eta sareak antolatzea, adina, dibertsitate funtzionala, jatorria eta beste alderdi batzuk aintzat hartuta.**

Noiz: 2016an eta 2017an.

Nork: Kultura, Gazteria, Berdintasun Politika eta Kirol Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Emakumeen arteko zenbat topaketa egin dituen Udalak. Zenbat emakumek parte hartu duten, adinaren, dibertsitate funtzionalaren, jatorriaren, eta abarren arabera.

#### **6. jarduera: Emakumeen asoziazionismoa indartzen jarraitzea, eta, horretarako, diru-laguntzak esleitzea.**

Noiz: 2014an eta hurrengoetan.

Nork: Kultura, Gazteria, Berdintasun Politika eta Kirol Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Zenbat diru-laguntza esleitu diren emakumeen asoziazionismoa indartzeko. Diru-laguntzen zenbatekoa, Galdakaoko elkarteak indartzera bideratutako diru-laguntza guztien aldean.

#### **7. jarduera: Festen Batzordearen bitartez, sentsibilizazioa eta berdintasuneko festetan parte hartzea bultzatzen jarraitzea.**

Noiz: 2014an eta hurrengoetan.

Nork: Kultura, Gazteria, Berdintasun Politika eta Kirol Arloak eta Festen Batzordeak.

Betetze mailaren adierazlea: Sentsibilizazioko eta berdintasuneko festetan parte hartzeko zenbat ekintza bultzatu dituen Festen Batzordeak.

2013. urtea: Aurrekontua: 4.500,00 €

**8. jarduera: Galdakaoko zaindariaren jaien genero-eragineko azterlan bat egitea, eta jaiok hobetzeko plan bat proposatzea.**

Noiz: 2015ean eta hurrengoetan.

Nork: Kultura, Gazteria, Berdintasun Politika eta Kirol Arloak eta Festen Batzordeak.

Betetze mailaren adierazlea: Egin ote den Galdakaoko zaindariaren jaien genero-eragineko azterlanik eta zenbat ekintza proposatu diren Hobekuntza Planean.

## **Ah.4 helburua:** Emakumeak kulturaren arloan ikusgarri egitea eta sustatzea.

**1. jarduera: Kultura-programazio orokorrean eta festa-programazioan, emakume sortzaileen jarduerak eta topaketak antolatzea.**

Noiz: 2016an eta 2017an.

Nork: Kultura, Gazteria, Berdintasun Politika eta Kirol Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Ba ote dagoen kultura- eta festa-programaziorik, emakume sortzaileen jarduerarik eta topaketarik aurreikusten duenik (bai/ez); zenbat emakumek parte hartzen duten.

**2. jarduera: Galdakaoko emakumeen ekarpen historiko eta kulturala ikusgarri egitea, ikerketa historikoaren eta hedapenaren bitartez.**

Noiz: 2016an eta 2017an.

Nork: Kultura, Gazteria, Berdintasun Politika eta Kirol Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Egin ote den Galdakaoko emakumeen ekarpen historiko eta kulturalari buruzko azterlanik (bai/ez); hedatu ote diren emaitzak herritarren artean (bai/ez); emakumeen ekarpen historikoa eta kulturala ikusgarri egiteko zenbat ekintza egin diren.

**3. jarduera: Emakumeen elkarteek kulturaren arlotik egindako ekintzak ikusgarri egiten jarraitzea.**

Noiz: 2014an eta hurrengoetan.

Nork: Kultura, Gazteria, berdintasun Politika eta Kirol Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Ikusgarri egin ote den emakumeen elkarten kultura arloko ekintzarik (bai/ez).

## **Ah.5 helburua: Emakume kirolarien jarduera ikusgarri egitea eta sustatzea.**

**1. jarduera: Kirol-programazio orokorrean eta festa-programazioan, emakumeak ikusgarri egiteko jarduerak antolatzea.**

Noiz: 2016an eta 2017an.

Nork: Kultura, Gazteria, berdintasun Politika eta Kirol Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Ba al dago emakume kirolariak ikusgarri egiten dituen kirol-eta festa-programaziorik (bai/ez).

**2. jarduera: Udalak antolatzen dituen kirol-lehiaketetan, emakumeen parte-hartzeari balorazio berezia egitea.**

Noiz: 2015ean eta hurrengoetan.

Nork: Kultura, Gazteria, berdintasun Politika eta Kirol Arloak eta Alkatetzak (Komunikazioa).

Betetze mailaren adierazlea: Antolatu ote duen Udalak emakumeen parte-hartzeari balorazio berezia egiten dion kirol-lehiaketarik (bai/ez). Zenbat emakumek parte hartu duten Udalak antolatutako kirol-lehiaketetan.

## ***Programa: baliabide ekonomikoak eta sozialak eskuratzea eta kontrolatzea***



**Ah.6 helburua:** Emakumeek lanpostu bat lortzeko dituzten aukerak, baita lanpostuan mailaz igotzekoak ere, eta haien enplegu-baldintzak hobetzea.

**1. jarduera: Emakumeak eduki teknologiko handiko puntako sektoreetako lanpostu teknikoetan egotea sustatzea, eta, horretarako, enpresa horietan neska-mutilentzako ate irekiko jardunaldiak egitea.**

Noiz: Planaren indarraldian.

Nork: Gizarte Ongizate, Tokiko Garapen eta Enplegu Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Egin ote den ate irekiko jardunaldirik eduki teknologiko handiko puntako sektoreetako enpresa teknikoetan (bai/ez). Zenbat emakume eta gizonek parte hartu duten ate irekiko jardunaldietan.

**2. jarduera: Inguruko enpresetan emakumeak kontratatzea sustatzea.**

Noiz: 2015az geroztik.

Nork: Gizarte Ongizate, Tokiko Garapen eta Enplegu Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Zenbat enpresa kontaktatu diren emakumeak kontratatzea bultzatzeko. Zenbat emakume kontratatu diren Inguruko enpresetan.

**3. jarduera: Koordinazio-ildoak ezartzea Lanbiderekin, emakumeen lan-baldintzak hobetzeko berariazko ekintzak egiteko.**

Noiz: 2015az geroztik.

Nork: Gizarte Ongizate, Tokiko Garapen eta Enplegu Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Koordinaziorik ezarri ote den Lanbiderekin (bai/ez).

**4. jarduera: Emakumeei zuzendutako prestakuntza bultzatzea, horien ordezkari txikia den sektoreetan.**

Noiz: 2015az geroztik.

Nork: Gizarte Ongizate, Tokiko Garapen eta Enplegu Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Emakumeei zuzendutako zenbat prestakuntza-ekintza bultzatu diren, horien ordezkari txikia den sektoreetan.

**Ah.7 helburua:** Baliabide sozialak eskuratzeko aukerak hobetzea, batez ere askotariko bereizkeriako egoerei erantzuteari dagokionez.

**1. jarduera: Emakumeentzako Lege Aholkularitzako Zerbitzuarekin jarraitzea.**

Noiz: Planaren indarraldian.

Nork: Gizarte Ongizate, Tokiko Garapen eta Enplegu Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Ba ote dagoen Emakumeentzako Lege Aholkularitzako Zerbitzurik (bai/ez).

**2. jarduera: Emakumeentzako Arreta Psikologikoko Zerbitzuarekin jarraitzea.**

Noiz: Planaren indarraldian.

Nork: Gizarte Ongizate, Tokiko Garapen eta Enplegu Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Ba ote dagoen Emakumeentzako Arreta Psikologikoko Zerbitzurik (bai/ez).

**3. jarduera: Enplegua sustatzeko programak garatzea pobrezia-arriskuan edo -egoeran eta/edo gizarte-bazterkeriako arriskuan edo egoeran dauden emakumeekin, genero-ikuspegitik.**

Noiz: 2014an.

Nork: Gizarte Ongizate, Tokiko Garapen eta Enplegu Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Egin ote den enplegua sustatzeko programarik pobrezia-arriskuan edo -egoeran eta/edo gizarte-bazterkeriako arriskuan edo egoeran dauden emakumeekin.

## 5.3 Gizarte-antolakuntza erantzukidea

### An.1 helburua: Erantzukidetasuna eta zaintzaren etika bultzatzea

**1. jarduera: Sentsibilizazio-ekintzak egitea erantzukidetasuna bultzatzeko, besteak beste emakumeak eta gizonak rol ez-tradizionaletan ikusgarri egiten dituzten kanpainekin.**

Noiz: 2017an.

Nork: Kultura, Gazteria, Berdintasun Politika eta Kirol Arloak eta Komunikazio Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Zenbat sentsibilizazio-ekintza egin diren erantzukidetasuna bultzatzeko.

**2. jarduera: Erantzukidetasuna bultzatuko duten ikastaro eta tailerrak antolatzea, gizon-emakumeei zuzenduta.**

Noiz: 2017an.

Nork: Kultura, Gazteria, Berdintasun Politika eta Kirol Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Zereginak trukatzeko zenbat tailer egin diren. Zenbat emakumek eta gizonak parte hartu duten erantzukidetasuna sustatzen duten tailerretan.

### An.2 helburua: Erantzukidetasuna sustatzen duten programa integralak bultzatzea.

**1. jarduera: Galdakaoko zainketaren eta kontziliazioaren egoerari buruzko azterlan bat egitea.**

Noiz: 2015ean.

Nork: Kultura, Gazteria, Berdintasun Politika eta Kirol Arloak, Alkatetzak eta Gizarte Ongizate, Tokiko Garapen eta Enplegu Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Egin ote den Galdakaoko zainketaren eta kontziliazioaren egoerari buruzko azterlanik.

**2. jarduera: Kontziliazio eta zainketarako mahai bat antolatzea Galdakaoko gizarte-eragileekin batera, ekintza-plan bat egiteko.**

Noiz: 2016an.

Nork: Kultura, Gazteria, Berdintasun Politika eta Kirol Arloak eta Alkatetzak.

Betetze mailaren adierazlea: Antolatu ote den kontziliazio eta zainketarako mahairik (bai/ez). Egin ote den ekintza-planik (bai/ez). Zenbat emakumek eta gizonek parte hartu duten kontziliazio eta zainketako mahaian.

**3. jarduera: Kontziliazioari eta zainketei buruzko tokiko akordio bat sinatzea.**

Noiz: 2017an.

Nork: Udalbatzak eta Berdintasun Batzordeak.

Betetze mailaren adierazlea: Sinatu ote den kontziliazio eta zainketari buruzko tokiko akordiorik (bai/ez). Zenbat erakunde atxiki diren kontziliazio eta zainketako mahaiari.

## 5.4 Emakumeen aurkako indarkeria

*Programa: sentsibilizazioa eta prebentzioa.*

### 1.1 helburua: Indarkeriarik gabeko portaera-ereduak bultzatzea.

**1. jarduera: Oroitzeko eta aldarrikatzeko ekitaldiak egitea azaroaren 25ean, Indarkeria Matxistaren aurkako Nazioarteko Egunean.**

Noiz: urtero.

Nork: Udal-arlo guztiek.

Betetze mailaren adierazlea: Egin ote den oroitzeko eta aldarrikatzeko ekitaldirik azaroaren 25ean, Indarkeria Matxistaren aurkako Nazioarteko Egunean (bai/ez).

**2. jarduera: Udalerriko emakumeen aurka egiten diren indarkeria matxistako erasoak publikoki eta sistematikoki salatzea.**

Noiz: urtero.

Nork: Gizarte Ongizate, Tokiko Garapen eta Enplegu Arloak, Kultura, Gazteria, berdintasun Politika eta Kirol Arloak eta Alkatetzak (Komunikazioa).

Betetze mailaren adierazlea: Egin ote den salaketa publiko eta sistematikorik (bai/ez).

**3. jarduera: Antolatzen diren genero-indarkeriaren aurkako ekitaldiak udal-arloen artean hedatzea.**

Noiz: urtero.

Nork: Arlo guztiak.

Betetze mailaren adierazlea: Egin ote den hedapenik (bai/ez).

**4. jarduera: Festetako sexu-erasoen aurka sentsibilizatzeko kanpainarekin jarraitzea.**

Noiz: urtero.

Nork: Kultura, Gazteria, berdintasun Politika eta Kirol Arloak, Hezkuntza eta Euskara Arloak, Festen Batzordeak eta Komunikazio Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Egin ote den festetako sexu-erasoen aurka sentsibilizatzeko kanpainarik (bai/ez).

## **I.2 helburua:** Emakumeen aurkako indarkeriazko jarrerren prebentzioa hobetzea.

**1. jarduera: Indarkeriazko jarrerak eta jarrera sexistak prebenitzeko eta tratu onak sustatzeko tailerrak antolatzen jarraitzea, gazteei zuzenduta.**

Noiz: urtero.

Nork: Kultura, Gazteria, berdintasun Politika eta Kirol Arloak eta Hezkuntza eta Euskara Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Egin ote den indarkeriazko jarrerak eta jarrera sexistak prebenitzeko eta tratu onak sustatzeko tailerrik gazteei zuzenduta (bai/ez). Zenbat pertsonak parte hartu duten, sexuaren arabera.

*Programa: indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeak artatzea.*

**I.3 helburua:** Biktimei erabateko arreta eta babesa bermatzea.

**1. jarduera: Emakumeen aurkako indarkeria-kasuetarako erakunde arteko koordinazioko tokiko protokoloarekin jarraitzea, koordinazio-mekanismoen bitartez.**

Noiz: urtero.

Nork: Kultura, Gazteria, berdintasun Politika eta Kirol Arloak eta protokoloan inplikaturik dauden arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Eguneratu ote den erakunde arteko koordinazioko tokiko protokoloa (bai/ez).

**2. jarduera: Emakumeen aurkako indarkeria-kasuetarako erakunde arteko koordinazioko tokiko protokoloaren berri ematea aldizka teknikariei eta politikariei.**

Noiz: Sei hilez behin.

Nork: Kultura, Gazteria, berdintasun Politika eta Kirol Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Bidali ote zaien aldizka teknikari eta politikariei informaziorik (bai/ez).

**3. jarduera: Gizarte Ongizate, Tokiko Garapen eta Enplegu Arloko langileei zuzendutako prestakuntza, genero-indarkeriaren biktimei diren emakumeei arreta eskaintzeko udal-eskuliburua egiteko.**

Noiz: 2017an.

Nork: Kultura, Gazteria, berdintasun Politika eta Kirol Arloak eta Gizarte Ongizate, Tokiko Garapen eta Enplegu Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Egin ote den Gizarte Ongizate, Tokiko Garapen eta Enplegu Arloko langileei zuzendutako prestakuntzarik, genero-indarkeriaren biktimei diren emakumeei arreta eskaintzeko udal-eskuliburua egiteko. Jardueretan zenbat pertsonak parte hartu duten, adinaren eta sexuaren arabera.

**4. jarduera: Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta eskaintzeko udal-eskuliburu bat egitea.**

Noiz: 2017an.

Nork: Kultura, Gazteria, berdintasun Politika eta Kirol Arloak.

Betetze mailaren adierazlea: Egin ote den genero-indarkeriako biktimak diren emakumeei arreta eskaintzeko udal-eskulibururik (bai/ez).

## 5.5 Ekintza Planaren laburpen-taula

GOBERNANTZA							
<b>1. helburua: Berdintasun politikak koordinatzeko tresnak sortzea bultzatzea.</b>							
Tresna	ID	Ekintza	2014	2015	2016	2017	Arloa(k)
G-	G.1.1.	Alkatetzaren eta Berdintasun Arloaren arteko jarraipen-mekanismoak ezartzea.					Alkatetza, Berdintasun Arloa
G-	G.1.2	Udaleko arloen arteko sektorekako lan-mahaia ezartzea, ekintza-plan zehatzetarako.					Alkatetza eta arlo guztiak
G-	G.1.3	Herritarrek parte hartzeko egitura bat sortzea (Berdintasun Mahaia).					Berdintasun Arloa
G-	G.1.4	Erakunde arteko koordinazio-egituretan parte hartzen jarraitzea; esaterako, Berdintasun Arloa.					Berdintasun Arloa
G-	G.1.5	Berdintasun Planaren Urteko Programa Operatiboak egitea.					Berdintasun Arloa
<b>2. helburua: Berdintasun-politiken etengabeko ebaluazioa sustatzea.</b>							
G-	G.2.1	Berdintasun Planaren etengabeko ebaluazioa egitea.					Berdintasun Arloa
G-	G.2.2	Emakundek, Emakumearen Euskal Erakundeak, tokiko mailan berdintasun-politikak ebaluatzeko egiten duten inkesta elektronikoa betetzea.  Noiz: urte bakoitzeko azken hiruhilekoan, Planaren indarraldian.					Berdintasun Arloa
<b>3. helburua: Berdintasunerako berariazko aurrekontuak egotea sustatzea.</b>							
G-	G.3.1	Berdintasun Arloari berorrek hasitako ekintzak egiteko berariazko aurrekontu bat esleitzen jarraitzea.					Udalbatza eta Eskuhartzailtza
<b>4. helburua: Berdintasun eta aniztasunerako komunikazioa sustatzea.</b>							



G-	G.4.1	Berdintasun Arlorako Komunikazio Plan bat egitea, bere jarduera ezagutarazteko.					Berdintasun Arloa eta Komunikazio Arloa
G-	G.4.2	Udalaren Estilo Eskuliburuan, Udaleko langile guztiek, barrukoek (politikariak, teknikariak, administrazioko langileak, eta abar) nahiz kanpokoek (udal-zerbitzuak, azpikontratutako enpresak, eta abar), hizkera eta irudi ez-sexistak erabiltzeko jarraibideak sartzea.					Berdintasun Arloa eta Komunikazio Arloa
G-	G.4.3	Berdintasun Plana barruan nahiz kanpoan hedatzea.					Berdintasun Arloa eta Komunikazio Arloa
G-	G.4.4	Udaleko langileei Berdintasun Planaren aurrerapenei buruzko informazioa helaraztea aldizka.					Berdintasun-teknikaria
G-	G.4.5	Hedabideei Berdintasun Planaren aurrerapenei buruzko informazioa helaraztea aldizka.					Berdintasun Arloa eta Komunikazio Arloa
<b>5. helburua: Genero-ikuspegia udal-arloen eguneroko lanean sartzea sustatzea.</b>							
G-	G.5.1	Hainbat udal-arloekin batera genero-ikuspegia lantzeko bilerak antolatzea.					Arlo arteko lan-batzordeak
G-	G.5.2	Genero-ikuspegia udal-kudeaketan sartzeko gida (teoriko/praktiko) moduko tresnak sortzea.					Berdintasun Arloa
G-	G.5.3	Udalak sortzen duen informazio guztiaren datu-bilketa aldatzea, barruan nahiz kontratu bidez egiten diren ikerketa, inkesta, txosten, estatistika, memoria, azterlan eta abarretan sexuaren arabera banaketa bermatzeko.					Informatika eta Telekomunikazio Arloa eta Berdintasun Arloa Gainerako arloak
G-	G.5.4	Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko prestakuntza-saioak antolatzea udal-langileentzako eta politikarientzako, Udal Prestakuntzako Planaren barruan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 17. artikuluari jarraiki.					Berdintasun Arloa eta Giza Baliabideen Arloa
G-	G.5.5	Genero-ikuspegia udal-araudian sartzea, aurretiko eragin-txostena egitearen bidez.					Udal-arlo guztiak.
G-	G.5.6	Genero-ikuspegia barneratu duten gizarte-klausulak sartzea Udalak egiten dituen zerbitzu- eta programa-kontratazioetan.					Udal-arlo guztiak
G-	G.5.7	Udalaren aldetik programak eta zerbitzuak kontratatzen dituztenean, berdintasunaren aldeko ekintzak egiten dituzten erakundeak positiboki baloratzea.					Udal-arlo guztiak
G	G.5.8.	Udal-aurrekontuen genero-eragina aztertzeko tresnak egitea.					Berdintasun Arloa eta Ekonomia Arloa

G	G.5.9.	HAPOn proposamenei buruzko genero-txosten bat egitea.					Berdintasun Arloa eta Arlo Teknikoa
G	G.5.10	Administrazioaren barruko berdintasunezko funtzionamendua ezarriko duen eta, zehazki, udal-egituretan emakumeen eta gizonen arteko oreka bermatuko duen udal-erregelamendu bat garatzea.					Berdintasun Arloa, Idazkaritza
<b>6. helburua: Emakumeek eta gizonen Udalak egiten dituen ekintzetan berdintasunez parte hartzea sustatzea.</b>							
G-	G.6.1	Emakumeek eta gizonen Udalak sustatzen dituen prozesu parte-hartzaileetan (batzordeak, epaimahaiak, lehiaketak, eta abar) berdintasunez parte hartzen dutela berrikustea eta, hala badagokio, bermatzea.					Udal-arlo guztiak
<b>7. helburua: Udal-langileen kudeaketa genero-ikuspegitik sustatzea.</b>							
G-	G.7.1	Galdakaoko Udalean jazarpen sexuala eta sexista saihesteko protokolo bat egitea eta onartzea.					Berdintasun Arloa eta Giza Baliabideen Arloa
G-	G.7.2	Udaleko emakumezko langileek antzemandako beharren eta hobetzeko arloen urteko txostena egitea, eta enpresa-batzordeari entregatzea, hitzarmena negoziatzeko orduan erabiltzeko.					Berdintasun Arloa eta Giza Baliabideen Arloa
G-	G.7.3	Galdakaoko Udaleko lanpostu bat lortzeko oposaketan gaitzerrendetan berdintasun-politikei lotutako berariazko atal bat egotea bermatzen jarraitzea.					Udal-arlo guztiak, Berdintasun Arloarekin batera

## Emakumeak ahalduntzea eta balioak aldatzea

### Programa: autonomia pertsonala eta balioak aldatzea

#### 1. helburua: Autonomia eta generoaren kontzientzia bultzatzea.

Tresna	ID	Jarduera	2014	2015	2016	2017	Arloa(k)
Ah-	Ah.1.1	Ahalduntzeari lotutako alderdi guztiei heltzea pobrezia ekonomikok eta bazterkeria-arriskuko egoeran dauden emakumeei zuzendutako laneko prestakuntzako programa guztietan.					Gizarte Ongizate, Tokiko Garapen eta Enplegu Arloa
Ah-	Ah.1.2	Galdakaoko edozer adineko emakumei zuzendutako ahalduntze-tailerrak egitea.					Berdintasun Arloa

#### 2. helburua: Balioen aldaketa bultzatzea, sexuaren arabeko rol sozialak eta estereotipoak deuseztatuta.

Ah-	Ah.2.1	Aisialdia monitorizatzeko tresnak egitea, genero-ikuspegia haurrentzako programetan txertatzeko.					Berdintasun Arloa, Kultura, Gazteria eta Kirol Arloa
Ah-	Ah.2.2.	Azterlan kuantitatibo bat egitea ikastetxeetan, beren egituren (zuzendaritza-taldea, eskola-kontseilua, irakasleak zikloka, eta abar) osaera aztertzeko sexuaren arabera bereizita.					Berdintasun Arloa, Hezkuntza eta Euskara Arloa
Ah-	Ah.2.3.	Genero-ikuspegia eskolaz kanpoko jardueretan eta ludoteketan sartzea sustatzea.					Berdintasun Arloa, Hezkuntza eta Euskara Arloa
Ah-	Ah.2.4	Baterako hezkuntzako jarduerak antolatzea Galdakaoko gurasoentzat, bai eta haurrentzat ere.					Berdintasun Arloa, Hezkuntza eta Euskara Arloa
Ah-	Ah.2.5	Berdintasunaren, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzearen eta erantzukidetasunaren arloko sentsibilizazio-jarduerak antolatzea, gizonei zuzenduta.					Berdintasun Arloa
Ah-	Ah.2.6	Egun berezietan, esaterako, martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, eta emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako beste egun berezi batzuetan, sentsibilizazio-kanpainak antolatzen jarraitzea.					Berdintasun Arloa
Ah-	Ah.2.7	Berdintasuna bultzatzeko tresna eta baliabideak ematea hezkuntzako eragileei.					Berdintasun Arloa eta Kultura, Hezkuntza eta Euskara Arloa

Ah-	Ah.2.8	Emakumeen eta gizonen bizitzako hainbat arlotako berdintasunari buruzko hausnarketa- eta sentsibilizazio-jarduerak egitea.					Berdintasun Arloa eta Kultura, Hezkuntza eta Euskara Arloa
Ah-	Ah.2.9.	Informazioa genero-ikuspegitik jorrazteko protokolo bat egitea, herritarrei, elkarteei, saltokiei, hedabideei, eta abarrei zuzenduta.					Berdintasuna eta Komunikazioa
<b>3. helburua: Emakumeen elkarte-mugimendua eta horiek elkarte-egituran parte hartzea sustatzea.</b>							
Ah-	Ah.3.1	Herritarren Galdakaoko elkarte-egiturako parte-hartzeari buruzko azterlan bat egitea, genero-ikuspegitik.					Kultura, Gazteria, Berdintasun eta Kirol Arloa
Ah-	Ah.3.2	Emakumeek udalerriko elkarte-mugimenduan parte hartzea sustatzeko ekintza-plan bat egitea.					Kultura, Gazteria, Berdintasun eta Kirol Arloa
Ah-	Ah.3.3	Galdakaoko emakumeen elkarteentzako prestakuntza-ekintzak antolatzen jarraitzea.					Kultura, Gazteria, Berdintasun eta Kirol Arloa
Ah-	Ah.3.4	Emakumeen elkarteei erakundeen barne-kudeaketari buruzko aholkuak ematea.					Kultura, Gazteria, Berdintasun eta Kirol Arloa
Ah-	Ah.3.5	Emakumeen arteko topaketak eta sareak antolatzea, adina, funtzio-aniztasuna, jatorria eta beste alderdi batzuk aintzat hartuta.					Kultura, Gazteria, Berdintasun eta Kirol Arloa
Ah-	Ah.3.6	Emakumeen asoziazionismoa indartzen jarraitzea, eta, horretarako, diru-laguntzak esleitzea.					Kultura, Gazteria, Berdintasun eta Kirol Arloa
Ah-	Ah.3.7	Festen Batzordearen bitartez, sentsibilizazioa eta berdintasuneko festetan parte hartzea bultzatzen jarraitzea.					Kultura, Gazteria, Berdintasun eta Kirol Arloa
Ah-	Ah.3.8	Galdakaoko zaindariaren jaien genero-eragineko azterlan bat egitea, eta jaiok hobetzeko plan bat proposatzea.					Kultura, Gazteria, Berdintasun eta Kirol Arloa eta Festen Batzordea
<b>4. helburua: Emakumeak kulturaren arloan ikusgarri egitea.</b>							
Ah-	Ah.4.1	Kultura-programazio orokorrean eta festen programazioan, emakume sortzaileen jarduerak eta topaketak antolatzea.					Kultura, Gazteria, Berdintasun eta Kirol Arloa
Ah-	Ah.4.2	Galdakaoko emakumeen ekarpen historiko eta kulturala ikusgarri egitea, ikerketa historikoaren eta hedapenaren					Kultura, Gazteria, Berdintasun eta

		bitartez.						Kirol Arloa
Ah-	Ah.4.3	Emakumeen elkarrekin kulturaren arlotik egindako ekintzak ikusgarri egiten jarraitzea.						Kultura, Gazteria, Berdintasun eta Kirol Arloa
<b>5. helburua: Emakume kirolarien jardura ikusgarri egitea.</b>								
Ah-	Ah.5.1	Kirol-programazio orokorrean eta festa-programazioan, emakumeak ikusgarri egiteko jarduerak antolatzea.						Kultura, Gazteria, Berdintasun eta Kirol Arloa
Ah-	Ah.5.2	Udalak antolatzen dituen kirol-lehiaketetan, emakumeen parte-harteari balorazio berezia egitea.						Kultura, Gazteria, Berdintasun eta Kirol Arloa Komunikazioa Arloa
<b>Programa: baliabide ekonomikoak eta sozialak eskuratzea eta kontrolatzea</b>								
<b>6. helburua: Emakumeek lanpostu bat lortzeko dituzten aukerak, baita lanpostuan mailaz igotzekoak ere, eta haien enplegu-baldintzak hobetzea.</b>								
Ah-	Ah.6.1	Emakumeak eduki teknologiko handiko puntako sektoreetako lanpostu teknikoetan egotea sustatzea, eta, horretarako, enpresa horietan neska-mutilentzako ate irekiko jardunaldiak egitea.						Gizarte Ongizate, Tokiko Garapen eta Enplegu Arloa
Ah-	Ah.6.2	Inguruko enpresetan emakumeak kontratatzea sustatzea.						Gizarte Ongizate, Tokiko Garapen eta Enplegu Arloa
Ah-	Ah.6.3	Koordinazio-ildoak ezartzea Lanbiderekin, emakumeen lan-baldintzak hobetzeko berariazko ekintzak egiteko.						Gizarte Ongizate, Tokiko Garapen eta Enplegu Arloa
Ah-	Ah.6.4	Emakumei zuzendutako prestakuntza bultzatzea, horien ordezkariak txikia den sektoreetan.						Gizarte Ongizate, Tokiko Garapen eta Enplegu Arloa
<b>7. helburua: Baliabide sozialak eskuratzeko aukerak hobetzea, batez ere askotariko bereizkeriako egoerei erantzuteari dagokionez</b>								
Ah-	Ah.7.1	Emakumeentzako Lege Aholkularitzako Zerbitzuarekin jarraitzea.						Gizarte Ongizate, Tokiko Garapen eta Enplegu Arloa
Ah-	Ah.7.2	Emakumeentzako Arreta Psikologikoko Zerbitzuarekin						Gizarte Ongizate, Tokiko Garapen

		jarraitzea.					eta Enplegu Arloa
Ah-	Ah.7.3	Enplegua sustatzeko programak garatzea pobrezia-arriskuan edo -egoeran eta/edo gizarte-bazterkeriako arriskuan edo egoeran dauden emakumeekin, genero-ikuspegitik.					Gizarte Ongizate, Tokiko Garapen eta Enplegu Arloa

<b>Gizarte-antolakuntza erantzukidea</b>							
<b>1. helburua: Erantzukidetasuna eta zaintzaren etika bultzatzea</b>							
An-	An.1.1	Sentsibilizazio-ekintzak egitea erantzukidetasuna bultzatzeko, besteak beste emakumeak eta gizonak rol ez-tradizionaletan ikusgarri egiten dituzten kanpainekin.					Berdintasun Arloa eta Komunikazio Arloa
An-	An.1.2	Erantzukidetasuna bultzatuko duten ikastaro eta tailerrak antolatzea, gizon-emakumeei zuzenduta.					Berdintasun Arloa
An-	An.2.1	Galdakaoko zainketaren eta kontzilioaren egoerari buruzko azterlan bat egitea.					Berdintasun Arloa, Alkatetza eta Gizarte Ekintza Arloa
An-	An.2.2	Kontzilio eta zainketarako mahai bat antolatzea Galdakaoko gizarte-eragileekin batera, ekintza-plan bat egiteko.					Berdintasun Arloa eta Alkatetza
An-	An.2.3	Kontzilioari eta zainketei buruzko tokiko akordio bat sinatzea.					Udalbatza eta Berdintasun Batzordea

<b>Emakumeen aurkako indarkeria</b>							
<b>Programa: sentsibilizazioa eta prebentzioa</b>							
<b>1. helburua. Indarkeriarik gabeko portaera-ereduak bultzatzea.</b>							
Tresna	ID	Jarduera	2014	2015	2016	2017	Arloa(k)
I-	I.1.1	Oroitzeko ekitaldiak egitea azaroaren 25ean, Indarkeria Matxistaren aurkako Nazioarteko Egunean.					Udal-arlo guztiak
I-	I.1.2	Udalerriko emakumeen aurka egiten diren indarkeria matxistako erasoak publikoki eta sistematikoki salatzea.					Gizarte Ekintza Arloa, Berdintasun Arloa eta Komunikazio Arloa

I-	I.1.3	Antolatzen diren genero-indarkeriaren aurkako ekitaldiak udal-arloen artean hedatzea.					Berdintasun Arloa
I-	I.1.4	Festetako sexu-erasoen aurka sentsibilizatzeko kanpainarekin jarraitzea.					Berdintasun Arloa, Kultura, Hezkuntza eta Euskara Arloa eta Festen Batzordea
<b>2. helburua: Emakumeen aurkako indarkeriazko jarrerren prebentzioa hobetzea.</b>							
I-	I.2.1	Indarrezko jarrerak eta jarrera sexistak prebenitzeko eta tratu onak sustatzeko tailerrak antolatzen jarraitzea, gazteei zuzenduta.					Berdintasun Arloa, Gazteria eta Kirol Arloa, Kultura, Hezkuntza eta Euskara Arloa
<b>Programa: indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeei arreta eskaintzea</b>							
<b>3. helburua: Biktimei erabateko arreta eta babesa bermatzea.</b>							
I-	I.3.1	Emakumeen aurkako indarkeria-kasuetarako erakunde arteko koordinazioko tokiko protokoloarekin jarraitzea, koordinazio-mekanismoen bitartez.					Berdintasun Arloa eta Protokoloan inplikaturako arloak
I-	I.3.2	Emakumeen aurkako indarkeria-kasuetarako erakunde arteko koordinazioko tokiko protokoloaren berri ematea aldizka teknikariei eta politikariei.					Berdintasun Arloa
I-	I.3.3	Gizarte Ongizate, Tokiko Garapen eta Enplegu Arloko langileei zuzendutako prestakuntza, genero-indarkeriaren biktimei diren emakumeei arreta eskaintzeko udal-eskuliburua egiteko.					Berdintasun Arloa eta Gizarte Ekintza Arloa
I-	I.3.4	Genero-indarkeriaren biktimei arreta eskaintzeko udal-eskuliburu bat egitea.					Berdintasun Arloa eta Gizarte Ekintza Arloa



# 6. Planaren kudeaketa

## 6.1 Koordinazioa eta antolaketa

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen 10. artikulua ezartzen duen bezala, foru- eta toki-administrazioek, bakoitzak bere burua antolatzeko dituen eskumenen eremuan, beren egiturak egokitu behar dituzte, halako moduz non administrazio bakoitzak emakumeen eta gizonen berdintasun-politikak bultzatu, programatu, ebaluatu eta horiei buruzko aholkuak ematen jardungo duen erakunde, organo edo administrazio-unitate bat izango baitu, gutxienez, dagokion jarduera-eremuan.

### Sustapenaren egitura

Plan honen ekintza-programatik eratorritako helburuak eta ekintzak lortzeko, beharrezkoa da horren sustapenaren egitura, jarraipena eta ebaluazioa izatea.

Sustapenaren egitura Kultura, Gazteria, Berdintasun Politika eta Kirol Arloan dago, eta bi pertsonak osatzen dute: arduradun politiko batek eta Berdintasuneko teknikari batek, Alkatetzaren laguntzarekin.

Honako hauek dira Berdintasuneko teknikariaren zereginak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 10. artikuluari jarraiki:

- a) Berdintasunaren alorrean programak eta plangintzak diseinatzea, bai eta horiei dagozkien jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak ere.
- b) Ekintza positiboko berariazko neurriak diseinatu eta sustatzea.
- c) Bakoitzak bere administrazioaren politika, programa eta ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzeko sustapen-lana bultzatzea, maila guztietan eta fase guztietan.
- d) Bakoitzak bere administrazioiko sailei eta beren mendeandakoen gainerako erakunde eta organoei emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz aholkularitza ematea eta lankidetzan aritzea.

- e) Bakoitzari dagokion lurralde-eremuan bizi diren herritarrentzat sentsibilizazio-jarduerak egitea emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoeraz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriez, bereizkeria anitzeko egoerak aintzat hartuta.
- f) Bakoitzak bere administrazioan berariazko programak edo zerbitzuak egokitzeko eta sortzeko proposamenak eta sustapen-lana egitea, bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarritzko gizarte-eskubideak izango dituztela bermatzeko.
- g) Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzen laguntzeko gizarte-baliabide eta zerbitzuak sortu eta egokitu daitezten proposamenak eta sustapen-lana egitea.
- h) Bakoitzaren lurralde-eremuan gertatzen diren bereizkeria-egoerak antzematea, eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak diseinatzea eta sustatzea.
- i) Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.
- j) Bakoitzaren administrazioari atxikitako langileek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan dituzten prestakuntza-beharrizanak diagnostikatzea, eta kasu bakoitzean behar den prestakuntza-mota eta prestakuntza hori jasotzeko irizpideak eta lehentasunak proposatzea.
- k) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskumenak dituzten erakunde, organo eta unitateekin, eta, bereziki, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearekin, solaskidetza izatea.
- l) Lege honetan jasotzen den edo beren eskumen-eremuan agindu dakizkiekeen beste edozein eginkizun burutzea.

### **Koordinazio eta jarraipen teknikoko egitura**

Gaur egun, arloak Berdintasuneko Batzorde Politiko bat du. Beharrezkoa litzateke koordinazioa eta jarraipena indartzea, eta, horretarako, udal-arloetako teknikariak izatea. Horiek, bada, koordinazioan lan egin dezakete proiektu zehatzetarako.

Hauek dira, besteak beste, bilera teknikoetan jorra litezkeen puntuak:

1. Urteko Plan Operatiboa harmonizatzea, jarraitzea eta ebaluatzea.
2. Arloen arteko baterako lana bultzatzea, baterako ekintzak eta proiektuak burutzeko.
3. Berdintasun Arloaren ekintzen berri ematea.

4. Kontzientziaztea eta sentsibilizazioa areagotzea, generoa udal-kudeaketan txertatzeko.

Bestalde, Planaren garapenean zehar, lan-mahaiak sortzea aurreikusten da. Horiek, bada, inplikaturako eragileekin (Udalekoak nahiz Galdakaoko gizarte- eta ekonomia-egiturakoak) batera programa zehatzei heltzeko sortuko dira.

Mahaiak parte-hartzaileak izango dira, hasierako eta amaierako lan-egutegia izango dute eta euskarri teknika emango diete mahai gaineratutako gaiei.

### **Herritarrek parte hartzeko egitura**

Herritarrek parte hartzeari lotutako beste koordinazio maila batean, Berdintasun Mahaia udal mailan (kanpoko) berdintasuna ezartzearekin lotutako gaiez arduratuko da. Hortik, bada, gaur egun parte hartzen ez duten elkarten parte-hartzea hedatuko da. Zereginetako bat Berdintasun Planaren ekintzak bultzatzea izango da, jarduerak hedatzearen eta talde-lana bultzatzearen bidez. Gainera, Plan Operatiboaren onarpen, jarraipen eta ebaluzioan parte hartuko du.

### **Erakunde-koordinazioko egiturak**

Azkenik, Udalak udalak koordinatzeko sarean parte hartzen jarraituko du, EUDEL, EMAKUNDE eta BERDINSAREekin (berdintasunaren aldeko eta indarkeriaren aurkako euskal udalen sarea) batera.

Era berean, beste erakunde batzuekin (Bizkaiko Foru Aldundia, esate baterako) daitezkeen beste koordinazio-sare edo -egitura batzuk baloratuko ditu.

### **Programazioa**

II. Plan honen programaziorako, Urteko Programa Operatiboak egingo dira urteko azken hiruhilekoan. Urteko Plan Operatibok Berdintasun Batzordeak onartuko ditu:

- Lan-planak egingo dira, eta horiek helburuak, jarduerak eta zereginak, inplikaturako arloak, aurrekontua eta ebaluatzeko adierazleak hartuko dituzte aintzat.
- Programa Operatibo bakoitzarentzako aurrekontu orokorra.

## 6.2 Planaren ebaluazioa

Berdintasunerako II. Plana etengabe ebaluatuko da. Gainera, urteko memoria bat egingo da. Ebaluazioa hainbat mailatan egingo da:

- Betetze mailaren ebaluazioa: Plan operatiboari jarraiki, jarraipen kuantitatibo bat egingo da, honako aldagai hauek aintzat hartuta:
  - Eginda / partzialki eginda / egin gabe / eginda, baina ez zegoen planifikatuta
  - Arrazoiak
- Prozesuaren ebaluazioa: ezarpen-prozesuaren indarguneak eta hobetzeko arloak aztertuko dira, udal teknikariei, politikariei eta gizarte-eragileei galdetuta. Honako alderdi hauek hartuko dira kontuan: inplikazioa, lan- eta koordinazio-tresnak, komunikazioa, parte hartzeko prozesuak, eta abar.
- Eraginaren ebaluazioa: Berdintasun-politikek duten eragina aztertuko da eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan egindako aurrerapenak neurtuko dira.

Gainera, Berdintasun Arloak, gainerako arloekin lankidetzan, EMAKUNDEk berdintasun-politika publikoen garapena ebaluatzeko EAEko udalerriei eskatzen dien inkesta elektronikoa beteko du urtero. Prozesuaren eta eraginaren ebaluazioa osatzeko, elkarrizketak, galdetegiak, eta abar egingo zaizkie inplikaturako eragileei.

## 6.3 Baliabideak

### Udal-aurrekontua

Estimazioen arabera, datozen 4 urteetan Berdintasun Plana egiteko aurrekontua **656.350 €**-koa izango da, honela banatuta:

2014	153.250 €
2015	160.100 €
2016	168.000 €
2017	175.000 €

Plana indarrean izango den urteetan, mantendu edo hobetu egingo dira aurrekontua eta baliabideak, eta aurreko urteko azken hilabeteetan ezarriko da.

## 6.4. Ebaluaziorako tresnak

Egindako jarduerak ebaluatzeko fitxa

<b>X.X helburua:</b>		
<b>X. jarduera:</b>		
<b>Arduraduna</b>	<b>Inplikatutako erakundeak</b>	<b>Kostu ekonomikoa (edo diru-laguntza)</b>
<b>Parte-hartzaileen kopurua (sexuaren, arloaren, gizarte-eragilearen arabera)</b>		
<b>Egindako jarduerak, prozesu-adierazleen arabera</b>	<b>Kronograma</b>	
<b>Oharrak</b>		

Plan Operatiboa ebaluatzeko fitxak

ARLOA ETA HELBUR	EKINTZ AK	EGUTEGIA												Hasierako aurrekont ua	Amaierak o aurrekont
		Urt	Ots	Ma	Api	Ma	Eka	Uzt	Ab	Ira	Urr	Aza	Ab		

UA		.	.	r.	.	i.	.	.	u.	.	.	.	e.		ua

Egin gabeko jarduerak	
ARLOA	ARRAZOIAK
Planifikatu gabeko baina egindako jarduera	
ARLOA	ARRAZOIAK

**Ebaluazio kuantitatibo globala (ekintzen kopurua):**

ARLOA:	Egindakoa	Partzialki eginda	Egin gabe	Eginda baina planifikatu gabe
<b>GUZTIRA</b>				

**Urteko memoria egiteko AMIA**

- Ahuleziak (barrukoak)

- Mehatxuak (kanpokoak)
- Indarguneak (barrukoak)
- Aukerak (kanpokoak)

### **Urteko memoriaren egitura**

1. Sarrera
2. Plan Operatiboaren betetze maila
3. Prozesuaren ebaluazioa
4. Eraginaren ebaluazioa
5. Jarraipen ekonomikoa
6. Ondorioak
7. Hurrengo urteko plan operatiboa
8. Egindako produktu eta dokumentuen zerrenda

# 7. Koordinazioaren organigrama





